



Lana / La obra

Hemezortzi urte zituen Mary Shelleyk *Frankenstein* idatzi zuenean. Hor sortu zuen azken mito modernoetako bat, etorkizun bikaina izango zuena, eta zinemari esker gaur egun ere ondo bizirik dirauena. Asko dira zinema mutuaren garaitik hasita gaur arte egin diren bertsiok, batzuk testuari atxikiagoak beste batzuk baino.

Gaur egun, ez da zorakeria esatea gutxik irakurri eta ia denok ikusia dugun istorio bat dela *Frankenstein*, aspaldi idatzia izan arren zuzen-zuzenean lotzen zaiena zientziaren aurrerapenak eta haren ondorioek gure garaian pizten dituzten eztabaida sutsuei.

Gaurko ikuspegitik, dena dela, garbi dago muntro bat sortu zuen doktore burubero samar baten istorioa baino gehixeago dela *Frankenstein*. Baina "gehixeago" horretara hurbildu nahi duenak liburura jo beharko du nahitaez. Mary Shelley, feminismoaren aitzindari Mary Wollstonecraft-en alaba, "irakurleari ilea lazteko moduko" zerbait idaztera jarri zenean, izu-istorio zoragarriaz gain, arrazoiak eta hizkuntzaz bere itsuskeria gainditu nahi duen izaki aldrebes baina xalo eta maitagarriaren istorioa sortu zuen.

Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Frankenstein**

Egilea / Autor: **Mary Shelley**

Saila / Colección: Literatura Unibertsala, 159

ISBN / EAN: 978-84-9746-814-5

Salneurria / Precio: 14 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orri kopurua / N° páginas: 292

Formatua / Formato: 130 x 195 cm

Egilea / El autor

Mary Shelley (1797-1851).

Bizitza gorabeheratsu samarra izan zuen. Haren ama, feminismoaren aitzindarietariko bat, Mary jaiotzean hil zen. Aita, berriz, filosofo erradikal ospetsu bat zen, inoiz ez ziona alabari nahitasunik izan. Mary gazte bakartia izan zen, oso irakurzalea. 1814an, Percy Bysshe Shelley poeta erromantikoa ezagutu, eta, hura ezkondurik egon arren, elkarrekin ihes egin zuten. 1816an, Lord Byronekin igaro zuen bikoiteak uda, Villa Diodatin, Genevatik gertu. Literatura fantastikoaren historian, ia-ia mitikoa da udaldi hura, gaur egungo mitorik handienetariko baten sorburua izan baitzen: *Frankenstein*. 1822an, P. B. Shelley hil egin zen, itsasoan itota. Horrez gainera, bost seme-alabatatik bakarra geratu zitzaion bizirik Maryri. Ospe oneko idazlea izan zen bere garaian, eta beste zenbait eleberri ere idatzi zituen (*Mathilda* eta *Valperga*, besteak beste), baina ezer ez *Frankenstein*en parekoa.

Itzultzailea / Traductor

Iñigo Errasti Aranbarri (Bilbo, 1973). Euskal Filologia ikasi zuen lehenengo, eta Itzulpengintza eta Interpretazioa urte batzuk geroago, tartean irakasle ibili ondoren. Gaur egun, itzultzailea da lanbidez. Zenbait literatur lan itzuli ditu: Harold Pinterren *Maitalea* eta beste antzerki-lan batzuk (Jokin Zaitegi lehiaketa, 2005), Nancy Houstonen *Jaiotze markak* eta John Steinbecken *Gizonak eta saguak*, besteak beste.

